
KUDEAKETA PLANA OSALAN 2015

PLANIFIKATUTAKO
EKINTZEN
DESKRIBAPENA



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

AURKI- BIDEA

AURKEZPENA	1
I. SARRERA	2
II. OSALANen 2015erako KUDEAKETA PLANA	6
1. EGITEKOA ETA IKUSPEGIA.....	7
2. HELBURUAK	8
3. EGITURA.....	12
4. ANTOLAKETA ETA BALIABIDEAK	14
5. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....	16
6. EKINTZAK	17
III. ERANSKINA. 2015erako AURREIKUSITAKO JARDUNALDIK ETA EKITALDIK	30



Laneko arriskuen prebentzioa arlo konplexua da; ordenamendu juridikoak botere publikoei esleitzen die laneko segurtasuna eta higiena zaintzeko ardura, lan-jardueraren ondoriozko arriskuak prebenituz langileen osasuna babesteko politika bat garatuz.

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen du ardura hori, Osalan hura gauzatzeko tresna delarik. Horren helburua ondorengoa da: «Euskal Autonomia Erkidegoaren botere publikoek ezartzen dituzten segurtasun, higiena, ingurumen eta laneko osasunaren inguruko politikak kudeatzea, lan-inguruneari datxezkion arriskuak hasiera-hasieratik ezabatzeko edo murrizteko joera dutenak».

Hartara, Osalaren zereginak berebiziko garrantzia dauka gure Lurraldeko herritar langileentzat. Horren jakitun izanik, Erakundeak kudeaketa-plan bat aurkezten du 2015erako. Horrekin, biztanleriak gudan duen konfiantzari erantzun egokia ematea espero dugu, kalitate oneko zerbitzua eskainiz eta balioa emanez.

Aldi berri bat hastera goaz, bai Osalane bere jardura garatzen dueneko laneko segurtasunaren eta higienearen alor estrategikoari dagokionez, bai gure kudeaketa-modeloari dagokionez. Hala, kudeaketa-plan honekin 2015-2020rako Laneko Segurtasun eta Osasuneko Euskal Estrategia erabiltzeari ekingo diogu, non Eusko Jaurlaritzaren aldi honetarako xedeak zehazten diren, bai eta sustatuko dituen arloak eta horiek lortzeko ekintzak ere.

Horrez gain, Planaren diseinua, garapena, jarraipena eta ebaluazioa kudeaketa publiko aurreratuaren eredu batean oinarritzen dira; horren bidez, Eusko Jaurlaritza kalitatezko zerbitzuak eskaintzen saiatzen da, XXI. mendeko gizartearen eskaera-mailaren arabera. Osalan ezin da bikaintasunerako bidean atzean geratu, ezta nahi ere. Aitzitik, kudeaketa publikoan aurrerapauso bat izango den eta gizarteari onura nabarmenak ekarriko dizkion proiektuaren partaide izan gara hasieratik.

Bi egoera hauek 2015erako eskakizun handiko kudeaketa-plan goranahia xedatzen dute, Erakunde hau bere gain hartzeko prest dagoena. Horretarako, gure langileen botere eta laguntza ordainezina dugu, baita laneko arriskuen prebentzioaren alorrean lan egiten duten eragileetako askok erakusten duten gogo ezin hobea ere.

Aipatzekoa da eragile hauen jokabidea onurak ekartzen ari dela, EAEko langileen segurtasun- eta higiena-baldintzen hobekuntzan ikus daitekeen legez. Horiek, nolahi ere, urriak dira oraindik. Laneko arriskuen prebentzioaren alorrean aurrera egin dugu. Halere, asko dago oraino egiteke, eta Osalan horretarako prest dago.

Enpresa txiki eta ertainei zuzendutako prebentzioa sartzek, bestalde, lortu beharreko helburua izaten jarraitzen du, baita autonomoak eta adineko langileak bezalako taldeen behar zehatzei erantzutea ere, edota genero-ikuspegia, besteak beste. Ezkutuan dagoen lan-gaixotasunak eragindako kezka dirau, bai eta lan-egoera alditsuaren ondoriozko arrisku berriei uztarturiko tratamenduak ere.

Horren guztiaren eta prebentzioaren urritasunen zatirik handienaren oinarrian laneko segurtasunaren eta higienearen inguruko kultura urria dago. Hori dela eta, arriskuen prebentzioaz kontzientziatzea eta lan-osasuna sustatzea dira Osalaren lehentasunezko xedeak.

Hartara, lana eta erronkak ditugu aurretik, baina Osalan osatzen duten lagunen ezagutza, eskarmentua eta, batez ere, gogo dugu haiei aurpegi emateko. 2015erako kudeaketa-plan honek gure ahalegina antolatzeke balio izango du, euskal gizartearekin partekatu ahal izango ditugun arrakastak erdiesteko eta gure biztanleria aktiboaren segurtasuna eta osasuna hobetzeko.

Gurekin batera lan egitera bultzatu nahi zaituztet.

Izaskun Urien Azpitarte
Osalaren zuzendari nagusia

SARRERA

2015-2020RAKO LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ESTRATEGIA

Osalanen 2015erako kudeaketa-plana ziklo berri baten hastapena da, 2015-2020rako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiak markatutakoa. 2014ko alor honetako EAEn estrategia amaituta, Eusko Jaurlaritzak laneko arriskuen prebentzioaren arloan hurrengo urteetarako hartu dituen politikak eta jarduerak zuzenduko dituen esparru berria zehaztu da.

Osalanen kudeaketa-plana estrategia hura garatzeko tresna nagusia da, Erakundeak, sortze-legeari jarraiki¹, «Autonomia-erkidegoaren botere publikoek xedaturiko segurtasunaren, higienezaren, ingurumenaren eta inguruko politikak kudeatzeko» betekizuna duen heinean, «lan-inguruneari datzekion arriskuak hasiera-hasieratik ezabatzeko edo murrizteko joera dutenak».

Hortaz, honako xede hau betetze aldera, Osalanek 2015ean gauzatuko dituen ekintzak Jaurlaritzak laneko segurtasun eta higiene arloan zehazturiko helburuak lortzera bideratuta daude, eta gizarte-eragileekin batera adostutako esparru estrategiko honen lehentasunekin bat datoz.

Osalanen 2015erako kudeaketa-plana, beraz, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategian azaldutako ardatz eta jardun-arloen arabera antolatzen da, eta ekimenak gauzatzen ditu bertan xedaturiko jardunbide ezberdinetan, betiere Erakundearen erantzukizunaren eremuaren barruan.

Baina ezin dugu ahaztu Osalanen jarduera aurreko estrategia-esparruan hasitako proiektuek baldintzatzen dutela, beren izaera eta irismena zirela eta, urte anitzeko egutegi batean diseinatu zirenak. Proiektuok jarraipena izango dute 2015ean egindako aurreikuspen eta beharrezko doikuntzen arabera, hala badagokie, testuinguru berriarekin bat etortzeko eta hobeto kudeatzeko.

2015-2020rako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren helburuak eta lehentasunak bere egiten dituen bezalaxe, Osalanen kudeaketa-planak bertan defendatzen diren balio eta printzipio gidariak ere bere gain hartzen ditu.

¹ 7/1993 Legea, abenduaren 21ekoa, OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzeari buruzkoa (EHAA, 4. zk., 1994ko urtarrilaren 7koa).



01.

2015-2020RAKO LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ESTRATEGIA

BALIOAK	PRINTZIO GIDARIAK
Unibertsaltasuna	Kolektibo guztietara iristea (enpresariak, langileak, prebentzio arloko profesionalak, gizarte-eragileak) eta, oro har, gizarte osora
Pragmatismoa eta aplikagarritasuna	Prebentzioa kudeatzeko zailtasun gehien duten enpresei eta sektoreei bereziki laguntzea (ETEak eta lehen sektorea)
Pertsonak ardatz dituenak	Laneko arriskuen prebentzioa pertsonak ardatz harturik, laneko osasuna sustatuz
Berdintasuna eta integrazioa	Arreta berezia ematea laneko arriskuen prebentzioran beharizan handienak dituzten kolektiboetara
Errealismoa	Eskura dauden baliabideez jabetzea eta jomuga irisgarriak ezartzea
Irekitasuna eta kolaborazioa	Herritarren parte-hartzea sustatzea eta beste eragile eta erakundeekin kolaboratzea laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko lanean
Gardentasuna eta ardura baliabide publikoen erabileran	Efizientzia eta eraginkortasuna helburuak betetzerakoan, herritarren aurrean kontuak emanez eta hobetzeko autokritika eginez
Osalanen lan-konpromiso irmoa, Erakundea osatzen duten pertsonen parte-hartzean eta profesionaltasunean oinarritutakoa	

SARRERA

2015-2020RAKO LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ESTRATEGIA

Balio eta printzipio hauen aplikazioa premisa batzuetan zehazten da. Horiek oinarri hartuta diseinatu dira, hain zuzen, Osalanen 2015erako kudeaketa-planaren ekintzak, plana gauzatu bitartean mantenduko direnak. Honako hauek dira:

- Laneko arriskuen prebentzioan interesa duten **eragileen parte-hartzea** edukitzea, gizarte-eragileena bereziki.
- Laneko segurtasuna eta osasuna gizarteari hurbiltzea, gizartea Erakundearen ekimenetan sartu eta **gardentasun** osoz kontuak ematea.
- **Enpresa eta lan-zentroetan** egotea, benetako prebentzio-arazoak dauden tokietan, alegia.
- Laneko segurtasun eta osasun arloan **berritzea**, arrisku berriei eta langile taldeei uztarturiko erronkei aurre eginez.
- Erakundearen proiektuetan **inplikaturako trebetasun handiko pertsonen** osaturiko taldea edukitzea.
- Jardueren **eraginkortasuna** bilatzea, efizientziarik galdu gabe eta baliabideei ahalik eta etekinik handiena ateraz.



01.

KUDEAKETA PUBLIKO AURRERATUAREN EREDUA

Laneko segurtasunaren eta osasunaren esparru berriari hasiera emateaz gain, Osalanen 2015erako kudeaketa-planak beste berritasun bat gehitu du, kudeaketa-ereduaren diseinuari, jarraipenari eta ebaluazioari buruzkoa.

2014ko urriaren 14ko Gobernu Kontseiluarekin adostutako hitzarmenari jarraiki, Eusko Jaurlaritzak **AURRERABIDE** onartu zuen, kudeaketa publiko aurreratuaren eredu berritzaile bat, XXI. mendeko gizartearen beharrei dagozkien zerbitzu publiko bikain, moderno eta eraginkorren eskaintza zabaltzeko aukera emango zuena.

AURRERABIDE proiektua 2013ko azaroan sortu zen Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailak sustatuko kudeaketa hobetzeko proiektu pilotu gisa. Fase pilotuan prestakuntza-ekintzako sistema berritzaile bat diseinatu zen. Ikasitakoa praktikan jartzearen metodologian oinarritu ziren, EGITEN-IKASI izenekoan, hain zuzen. Osalanek bat egin zuen borondatez, Gobernuko beste unitate antolatzaile batzuekin batera.

Urtebeteke fase pilotuaren ostean eta Gobernu Kontseiluak eredia onartu eta hura EAeko Herri Administrazioa hedatzea onetsi ondoren, **AURRERABIDE** ezartzeko programari hasiera eman zitzaion, ereduaren ardatz ezberdinak landuz eta hura ondoz ondoko hobekuntza-planak sustatzen dituzten aldizkako kudeaketa-ebaluazioekin garatuz.

Osalanek, beraz, **AURRERABIDE** proiektuaren fase pilotuan parte hartu zuen. Horren ondorioz, 2015erako kudeaketa-plana sortu zen, Erakundeak eman beharreko zerbitzuen bidez helburu estrategiko irisgarriak sorrarazten dituzten ikuspegi eta egiteko baten zehazpen gisa. Plana **AURRERABIDE** ereduak xedatzen dituen kudeaketa-tresna aurreratuez baliatuz diseinatu, gauzatu, jarraitu eta ebaluatuko da; eredia Erakundearen osorik ezartzea izango da, hain zuzen, Osalanen aurtengo jardunbideetako bat.

KUDEAKETA PLANA

OSALANen 2015erako

Hurrengo kapituluetan Osalanen 2015eko jardueraren plangintza azaldu eta arrazoituko da, bai eta bere helburuak lortzeko Erakundeak aplikatuko duen kudeaketa-sistema ere.



1. EGITEKOA ETA IKUSPEGIA

AURRERABIDE eredia ezartzeko prozesuan Osalanek egindako lehen hausnarketaren ondorioz, Erakundearen egitekoa eta ikuspegia mugatu dira. Horretarako, Erakundeak mintzagai dituen laneko segurtasun eta osasunaren testuinguruan topa daitezkeen sendotasun-ahuleziak aztertu eta aukera-mehatxuak identifikatu dira.

02.

EGITEKOA

1.1. OSALANEN EGITEKOA

Autonomia Erkidegoaren botere publikoek ezartzen dituzten segurtasun, higiene, ingurumen eta laneko osasunaren inguruko politikak kudeatzea, lan-inguruneari datzekion arriskuak hasiera-hasieratik ezabatzeko edo murrizteko joera dutenak.

- Segurtasuna eta osasuna txertatzea euskal jendartea bereizten duen ondo egindako lanaren eta enpresa-bikaintasunaren kulturen, laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa, prestakuntza eta ezagutzaren bidez.
- Inplikaturako enpresari, langile eta bestelako eragileei EAEko enpresa eta herri-administrazioetako laneko arriskuen prebentzioko jarduerak gauzatzen laguntzea, laguntza eta aholkularitza teknikoa eskainiz.
- Laneko arriskuen prebentziorako araudia betetzeko neurriak bultzatzea, eta, horri begira, enpresei eta prebentzio arloko antolakundeei beren zailtasunak gainditzen laguntzea, eta, aldi berean, arau-hauste larriak eta/edo behin eta berriz errepikatuak kontrolatzea eta zigortzea.
- Beste Administrazio eta Erakunde publiko batzuekin koordinatzea eta kolaboratzea langileen segurtasuna eta osasuna hobetzeko ahaleginean balio erantsia duten proiektu eta jardunbideetan.
- Laneko arriskuen prebentzioan esku hartzen duten eragileei laguntzea haien guztien eta gizarte osoaren parte-hartzea sustatuz, modu horretara laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko.

IKUSPEGIA

1.2 OSALANEN IKUSPEGIA

Osalan Europar Batasuneko erreferentea da laneko segurtasun eta osasun arloko politika publikoen Erakunde sustatzaile gisa, bereziki ondorengo esparruetan:

- Ezagutza sortzen
- Laneko segurtasuna eta osasuna eta prebentzioaren kultura sustatzen
- Aholkularitza eta laguntza teknikoaren arloan
- Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko gainontzeko erakunde eta eragileekin elkarlanean

2. HELBURUAK

Erakundeak bere egitekoa betetzeko, eginkizunak gauzatzeko eta bere gain dituen zerbitzuak emateko jardura antolatzeko tresna da Osalanen kudeaketa-plana.

Osalanek gauzatu dituen ekintzak modu argi eta egituratuan aurkeztea da planaren asmo nagusia, lortu nahi diren helburuak arrazoituz eta ataza gauzatzeko metodologia, antolaketa eta baliabideak deskribatuz.

Planak lehentasunak ezartzen ditu eta, gardentasun osoz, Erakundeak bere baliabideak aplikatuko dituen jarduerak ematen ditu ezagutzera; hala, kudeaketa-tresna bat izateaz gain, eragile interesatuei eta biztanleriari landuko diren ekimenak ezagutarazteko bidea ere bada. Era berean, talde anitzei eta gizarteari interesgarri suertatzen zaizkien jardueretan parte har dezaten erraztuko da.

Kudeaketari dagokionez, Planak Osalanen jarduerari buruzko ikuspegi orokorra ematen du. Halaber, Erakundea osatzen duten profesionalek beren atazak antolatzeko eta sistema koherente eta partekatu batekin lan egiteko aukera izango dute.

Azkenik, Osalanen helburuen eta horiek betetzeko Erakundeak gauzatzen dituen jardueren arteko ardatz nagusia da Plana, horiek guztiak kausa-ondorio adierazleekin lotzen dituena. Horiei esker, xedeak betetzen direla monitorizatu eta ebaluatu daiteke.

2.1 OSALANen helburu estrategikoak

Osalanen 2015erako kudeaketa-planak dituen helburuak Erakundeak berak zehaztutakoak dira, 2015-2020rako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategiaren helburuak bere egiten dituelarik haren erantzukizunaren eremuaren barruan. AURRERABIDE ereduaren ezarpenaren bidez Erakundea hobetzearekin zerikusia duen beste xede bat gehitu behar zaie aurretik aipatutakoei eta, esparru horretan, bere zerbitzu eta prozesuen optimizazioa.

ARDATZA	OSALANEN HELBURU ESTRATEGIKOAK		
1. ARDATZA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN (LAP) KULTURA	<p>0.1.- Laneko arriskuen prebentzioaren kultura sustatzea.</p> <p>0.2.- Eragileen eta biztanleriaren parte-hartzea erraztea.</p>		
2. ARDATZA: LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNARI (LSO) BURUZKO EZAGUTZA SORTZEA ETA HEDATZEA	<p>0.3.- Izan litezkeen arriskuei, kalteei eta erabilitako neurrien eraginkortasunari buruzko ezagutzak sortzeko gai den sistema bat edukitzea..</p> <p>0.4.- Kalteak prebenitzeko eta osasunaren hobekuntza sustatzeko jakintza sortzea.</p> <table border="1" data-bbox="1235 632 1567 737"> <tr> <td>Ikerketaren bidez</td> </tr> <tr> <td>Prestakuntzaren bidez</td> </tr> </table>	Ikerketaren bidez	Prestakuntzaren bidez
Ikerketaren bidez			
Prestakuntzaren bidez			
3. ARDATZA: LAParen KUDEAKETA	<p>0.5.- Aholkularitza eta laguntza teknikoaren bitartez jakintza hedatzea, enpresetan eta lan-zentroetan aplikatzea.</p> <p>0.6.- Arriskuak kudeatzera zuzendutako LAP jardueren kalitatea sustatzea.</p> <p>0.7.- Lan-baldintzen hobekuntza bultzatzea.</p> <p>0.8.- Kudeaketan LAParen integrazioa sustatzea.</p>		
4. ARDATZA: HERRI-ADMINISTRAZIOA	<p>0.9.- Aliantza estrategikoez baliatuta, Organo, Administrazio eta Erakundeekin batera lan egitea eta koordinatzea.</p> <p>0.10.- Osalanen zerbitzua eta kudeaketa hobetzea.</p>		

2.2 2015erako helburu zehatzak eta jardunbideak

2015erako berariazko helburu estrategikoak betetzeko, Osalanek jarduerak gauzatu ditu hainbat jardunbidetan, ondorengo lehentasunen arabera:

Laneko arriskuen prebentzioa ahalik eta bide gehien baliatuz ezagutzera ematea, publiko ezberdinei haiei egokitutako mezuak helarazteko.

- Interneten aukerak eta ikus-entzunezko euskarriak.
- Esperientzien trukaketa dibulgazio-ekitaldietan.
- Biztanleria gazteenaren prebentzio-kultura, hura hezkuntza-prozesuan gehituz.
- Lan autonomoaren taldea.

Interes taldeekin harreman estua mantentzea, haien beharrak antzemateko, emaitzak igortzeko eta lan-zentroetako prebentzio-egoeraren inguruko ezagutza eguneratua izateko.

- Gizarte-eragileekin eta prebentzian adituak diren entitateekin lan egitea.
- Biztanleriaren parte-hartzea Internet eta sare sozialen bidez.

Eragileak prebentzio-zereginak garatzeko trebatzea, talde ezberdinei berariazko prestakuntza eta jarduerak eskainiz, eta baliozko materiala eta eduki hezigarriak emanez.

- Prebentzio arloko langile ordezkarietzako eta osasun-langile eta prebentzio-erakundeetako osasun-arloko langileentzako eta teknikarietzako prestakuntza.

Arrisku berri eta ezezagunei buruz ikertzea eta beharrian zehatzak dituzten taldeen egoera aztertzea.

- Nanoteknologiak, lan-minbizia, genero-ikuspegia eta zahartzearren kudeaketa.
- Emakumeak, adinekolangileak, gazteak, migratzaileak eta minusbaliotasunak dituzten pertsonak.

Laneko segurtasuna eta osasunari buruzko informazioa eta ezagutzak hedatzea, hainbat euskarri eta formatutan.

- Jardunaldi teknikoak eta dibulgazio-ekitaldiak
- Eragileentzako datuak, informazioa eta material hezigarri erabilgarria.

Enpresa txiki eta ertainei eta mikroenpresei zuzendutako jarduerak lehenestea, beren prebentzio-kudeaketa hobetzeko beharrezkoak diren laguntza teknikoak eta tresnak eskaintze aldera.

- Istripu-tasa eta prebentzio-arazo handienak dituzten sektoreak eta jarduerak, lehen sektorea, azpikontratazioa eta bide-istripuak azpimarratuz.
- Laneko arriskuen prebentzioa enpresen lehiakortasun eta bikaintasunaren faktore gisa.
- Prebentzio-jardueraren onarpena enpresaren beraren baliabideekin.

Arriskuak hobeto ebaluatzeko eta tratatzeko tresnak nabarmentzea, haien kausa eta ondorioei buruzko ezagutzak sortuz, bai eta prebentzio-neurri eraginkorrak emanez ere, bai lan-baldintzei dagozkienak, bai prebentzio-jarduerei dagozkienak.

- Gidak, protokoloak eta gomendioak.
- Prebentzio-plana, arriskuen ebaluazioa, prebentzio-jardueraren plangintza eta lanari loturiko istripu eta gaixotasunei buruzko ikerketak.

Laneko segurtasuna eta osasunaren arloan lan egiten duten Organo eta Erakundeekin harremanak sortzea eta sendotzea, alor interesgarrietan baterako proiektuak garatzearren.

- Prebentzio-erantzukizunak dituzten Organo eta Administrazioekin koordinatzea.
- Baterako proiektuak antzeko arazoak dituzten beste autonomia-erkidego batzuekin.

Osalanek eskaintzen duen zerbitzua hobetzea, prozesuak optimizatuz, adierazleak ebaluatuz eta hobekuntza-plan bat diseinatuz.

- Zerbitzuen katalogoa, prozesuen mapa eta aginte-koadroa.
- Barneko komunikazioa.
- Aholkularitza eta kontsultarako zerbitzua

3. PLANAREN EGITURA

Osalanen 2015erako kudeaketa-plana 2015-2020rako Laneko Segurtasun eta Osasuneko Euskal Estrategiarekin bat egiten du eta, hartara, azken honetan zehaztutako ardatzen arabera egituratuko da jarduerak.

Hala, esparru estrategiko berriak 4 ardatzetan banatzen ditu esku-hartzeak, non jardun-arloak eta jarduerak sartzen direneko jardunbideak kokatzen diren.


Egitura hau helburu estrategikoak betetzera dago bideratuta eta, Osalanek, hala dagokion heinean, haiek partekatzen dituen gero, zentzuzkoa da Erakundearen kudeaketa-plana era berean antolatzea.

3.1 Jardun-arloak eta jardunbideak

Helburu estrategikoei azpimarratu beharreko arloak baldintzatzen dituzte. Horiek, gainera, Osalanen eremu funtzionalaren eta bere zerbitzu-eremuren arabera dira.

2015erako xedaturiko lehentasunek ekitaldian zehar arloetan garatu beharreko jardunbideak mugatzen dituzte, diseinatutako ekintza zehatzen bidez.

Jarraian agertzen den koadroan Osalanen aurtengo kudeaketa-planaren egitura laburbiltzen da. Horri esker, ekintzak eta horiek jardun-arloan duten eragina kudeatu, jarraitu eta ebaluatu ahal izango dira.



ARDATZA	JARDUN ARLOA	JARDUNBIDEAK
1. ARDATZA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KULTURA	1.- KONTZIENTZIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA	Komunikabideetan agertzea
		Dibulgazio-ekitaldiak
	2.- ERAGILEEN INPLIKAZIOA ETA LAGUNTZA	Langile autonomoak
		LAP hezkuntzan
		Dibulgazio-materiala
		Internet eta sare sozialen bidezko elkarrekintza
Lan-taldeak eragileekin		
2. ARDATZA: LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNARI BURUZKO JAKINTZA SORTZEA ETA HEDATZEA	3.- INFORMAZIOA	kalteak
		Ondorengoei buruzko informazioa biltzea, ustiatzea, analizatzea eta hedatzea
	4.- IKERKETA	arriskuak
		berariazko taldeak
	5.- PRESTAKUNTZA	LAParen inguruko jarduerak
		Ikerlanak eta proiektuak sustatzea eta gauzatzea
6.- EZAGUTZAREN HEDAPENA	Online/presentziako prestakuntza eta material hezigarria	
	Prebentzioko ordezkarietzako (PPOO) prestakuntza	
	LAPen goi-mailako teknikaria izateko prestakuntza	
	Aholkularitza eta laguntza teknikoa	
3. ARDATZA: LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN KUDEAKETA	7.- PREBENTZIO JARDUERAREN KALITATEA	Kontsultarako zerbitzua
		LAParen inguruko jardunaldi teknikoak
	8.- LAN BALDINTZEN HOBEKUNTZA	Gidak, protokoloak eta gomendioak
		Arriskuen identifikazioa, karakterizazioa, ebaluazioa eta trataera
	9.- KUDEAKETAN PREBENTZIOA INTREGATZEA	Lantaldeak, eragile kimikoak, lanpostuen diseinu ergonomikoa, ekipoa, etab., eragin psikosoziala duten antolamendu-baldintzak
Langile autonomoak		
Istripu-tasa handieneko jarduerak		
4. ARDATZA: HERRI- ADMINISTRATIOAK	10.- ADMINISTRATIO KOORDINAZIOA	Aholkularitza eta laguntza teknikoa: Lehen sektorea
		ETEak: Proiektuak sektoreko elkarrekin, mankomunitateekin...
		Erantzukizun partekatuko arloetan koordinatzea
	11.- ERAKUNDEEKIN ELKARLANA	Kontrol-jarduerak
		Administratioetan LAP garatzea
		Beste Administrazio eta Erakundeekin lan egitea eta baterako proiektuak garatzea
12.- OSALANEN ZERBITZUAK ETA PROZESUAK	Dokumentuak kudeatzea eta artxibatzea	
	Herritarrentzako arreta	
	Aurrekontuen jarraipena	
	Aurrerabide erdua ezartzea	
Zerbitzu-karta		

4. ANTOLAKETA ETA BALIABIDEAK


Osalanen 2015erako kudeaketa-planaren garapenak Erakundearen Zuzendaritza eta langileak konprometitzen ditu, dagozkien atazak modu antolatuan eta eraginkorrean egin beharko dituztenak.

Lanaren antolaketa Erakundearen egitura hierarkiko eta funtzionalaren arabera gauzatuko da. Haren Egitura eta Funtzionamenduaren Erregelamenduak² administrazio-organo anitzen eta organo periferikoen erantzukizunak ezartzen ditu, baita sektoreetako unitateen konfigurazioa ere.

4.1 Osalan kudeatzeko sistema

AURRERABIDE ereduaren ezarpenari esker, Osalanek antolaketa eta kudeaketaren alderdiak argitu ahal izan ditu, erantsitako diagraman irudikatzen den emaitzarekin.

Egitekoa + Ikuspegia + Helburuak + Talde interesgarriak eta aliantzak



Bertan Erakundearen jarduera garatzeko ibilbide-orrria zehazten da, bai eta beharrezko kudeaketa-tresnak ere.

2015ean zehar tresna hauekin egingo da lan, Osalani herritarrek eskatutako kalitateko zerbitzuak eskaintzea ahalbidetuko dion prozesu-mapa bat diseinatzeko helburuarekin. Horiek, era berean, gure zerbitzu-kartan agertuko dira.

Barne-kudeaketa hobetzeko prozesu hura 2014an hasi zen eta Erakundearen jarduerarekin batera garatu izan da modu harmoniatsuan. Azken horri, hain zuzen ere, gehituko zaizkio pixkanaka antzemandako kudeaketa-hobekuntzak.

4.2 2015eko kudeaketa-planaren diseinua eta garapena

Erakundearen **Zuzendaritza Batzordeak** du Osalanen kudeaketa-planaren diseinuaren eta garapenaren azken erantzukizuna; nolahi ere, ardura handiko langileek nahiz, beren prestakuntza eta eskarmentua direla eta, proiektu edo jarduera zehatzen buru izateko egokiak diren pertsonak ere har dezakete erantzunbehar hori. Zuzendaritzak hautatuko ditu pertsona horiek, beren lana gauzatu ahal izateko tresnak eta laguntza erraztuko dizkienak.

Horrez gain, gizarte-eragileek Planaren diseinuan eta garapenean parte har dezaten laboratzen du Osalanek, xede horretarako sortutako **Kontseilu Nagusiaren berariazko Batzordearen** bidez (Kudeaketa Planaren Jarraipenerako Batzordea). Bertan, eragileek egindako ekarpenak jaso eta elkarlaneko arlo nagusiak antzematen dira.

Planaren **diseinu-fasea** amaitutzat jo daiteke honako agiri honekin, non ekitaldirako aurreikusitako ekimenak laburbiltzen diren. Haien artean ezberdintasunak daude, ez baitira izaera bereko jarduerak.

Sortze-legeak esleitzen dizkion funtzioak betetzearren Osalanek gauzatutako jarduerak ditugu alde batetik, izaera iraunkorra dutenak eta helburu horretarako gauzatzen direnak, diseinatutako prozesuei jarraiki. Jarduera hauen

² 191/2002 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Egitura eta Funtzionamenduko Erregelamendua onartzen duena (EHAA, 164. zk., 2002ko abuztuaren 30ekoa).

alderdirik aipagarriena horien bolumena eta Erakundeari dakarkion baliabide-kontsumoa aurreikusteko zailtasuna da. Izan ere, horietako asko Osalanek aintzat hartu beharreko eragileek beraiek eskatutakoak dira, istripuak zein osasun-alertak direla medio.

Bestalde, laneko arriskuak prebenitzeko eta EAeko langileen segurtasuna eta osasuna hobetzeko Erakundeak garatuko dituen proiektuak ere Planean sartzen dira. Ekimenok denbora-mugak dituzte, zenbait kasutan urte anitzekoak, eta diseinu dokumentatua dute ezaugarri, non helburuak, irismena, atazak, itxarondako produktuak eta neurketa-adierazleak zehazten diren.

Proiektuak Osalaneko langileek, dagozkien alorretan, proposatzen dituzte eta Zuzendaritza Batzordea da horiek onartzen dituenak, prebentzio-eragina eta gauzatzeko bideragarritasuna aurretik balioztatzen delarik, baliabide eskuragarriak kontuan hartuz. Azkenik, arduradunak eta baliabideak esleitzen zaizkie onartutako ekintzei eta, hortik aurrera, ekintza horiek garatzeari ekiten zaio.

Kudeaketa-planaren egikaritzea ekintzen diseinuaren baldintzen arabera egiaztatzen da; baldintzok Erakundearen kudeaketari uztarturiko zioengatik, ekintzaren diseinuaren egokitasunari loturikoengatik nahiz horiek erasaten dituzten kanpoko egoerekin zerikusia duten zergatiengatik alda daitezke.

Lan-karga zuzentasunez banatuz hartuko dute parte langileek jardueretan, norberaren espezializazioa kontuan hartuz; hartara, egitekoa ondoen egingo duen pertsonari esleituko zaio, langileak gero eta trebeagoak izango dira eta Erakundearen ezagutza ere handituz joango da.


Erakundeak dauzkan baliabide ekonomikoak Eusko Jaurlaritzak 2015. urterako onartutako aurrekontuetan iragarritakoak dira.

4.3 Baliabideak

Osalanek 13.801.000 €-ko aurrekontua du 2015. urterako, abenduaren 23ko 5/2014 Legeak hala onartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak onartzen

dituena. Aurrekontu-zuzkidura horrek langileen gastuari eta funtzionamenduaren gastuei aurre egiteko balio du; horiek guztiak beharrezkoak dira Erakundearen jardura garatuko bada, bai eta 2015eko kudeaketa-planak xedaturiko berriazko ekintza eta proiektuak finantzatzeko ere.

Kudeaketa-plan honetan aurreikusitako jarduerak gauzatzeko Erakundeak dituen giza baliabideei dagokienez, Osalan 177 langilek osatzen dute, ondorengo organigramaren arabera sailkatuta:



5. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Osalanek ulertzen du, Erakunde publiko garenez gero, gure jardueren eraginkortasuna eta etekina ebaluatu behar dugula, bai eta biztanleriari ebaluazio horren emaitzen berri eman ere.

AURRERABIDE kudeaketa aurreratuaren ereduaren ardatzetako bat **emaitzei** zuzenduta dago. Hori dela eta, emaitzok finkatu, jarraitu eta alderatu behar dira, eremu estrategikoari, zerbitzuen hartzaileei, langileei, gizarteari eta eraberritzeari dagokienez.

Horregatik, hain zuzen ere, Osalanen jarduera hainbat ikuspuntutatik aztertu behar dugu, gure jardunbideen eraginen inguruko informaziorik osoena izateko eta, hortik abiatuz, hobekuntzak egin ahal izateko.

Ebaluatzeko ezinbestekoa da kausa-ondorioak lot ditzaketen adierazle fidagarriekin neurtzea. Hortaz, 2015erako Osalanek planifikatu dituen jarduerak, kudeaketa-plan hau osatzen dutenek, adierazleak izango dituzte, ezarritako helburuaren aurrerapenari nahiz emaitzari uztartutakoak.

5.1 Kudeaketa-planaren jarraipena

Kudeaketa-planaren garapenaren jarraipena etengabeko prozesua izango da; hura gauzatzeko euskarri informatiko bat gaituko da, non jardueren arduradunek atazen egoera adieraziko duten, bai eta egutegiei eta baliabideei loturiko doikuntzak dokumentatu ere. Aipatutako tresna horretan, halaber, jarduera bakoitzari esleitutako adierazleek egindako neurketaren emaitza bilduko da, bakoitzaren sistema eta maiztasuna zehazten direlarik.

Lau hilabetetan behin, Zuzendaritza Batzordeak jardunbideen aurrerapena eta egoera berrikusiko ditu, Plangintzako Zuzendariordetzak gauzatutako txostenean oinarrituz. Horren ardura da, hain zuzen, Planaren jarraipena gauzatzea eta hura ebaluatzea.

Txostena ekintza eta adierazle guztiak biltzen dituen aginte-koadroan oinarrituko da. Horietan funtsatuz, Planaren aurrerapena balioztatuko da eta, hala badagokio, antzemandako desbideratzeak zuzentzeko ekintzak proposatuko dira.

5.2. Gizarte-eragileen ekarpena

Aipatutako **Osalanen Kontseilu Nagusiaren Kudeaketa-Planaren Jarraipenerako Batzordearen** alorrean, Osalanen kudeaketa-planaren garapena berrikusiko da gizarte-eragileekin batera, ekintzen egoeren, lortutako aurrerapenen eta antzemandako desbideratzeen berri emanez, eta hobetzeko beren ekarpena eta iradokizunak eskuratuz.

Batzordearen baitan jarduera nahiz jardunbideren baten hasierako antolamendua aldatzea proposatuz gero, proposamena Osalanen Kontseilu Nagusiari helaraziko zaio, hark onar dezan.

5.3 Osalanen jardueraren memoria

Ekitaldia amaitutakoan, Osalanek bere lanaren emaitza aurkeztuko du herritarren aurrean jardueraren memoria batean. Bertan, erdietsitako lorpenak eta laneko segurtasuna eta osasunaren inguruko ebazteke dauden kontuak aztertuko ditu.

